

2021eko uztailaren 23an burutu den mahai negoziatzaileak gai zerrendan puntu bakarra izan du, hezitzaileen abuztuko mugimenduak.

Hasteko esan beharra daukagu 5 aldiz atzeratu dutela bilera hori, azalpenak eskatzean agenda arazoak argudiatu dituzte. Horrek ez dauka ez hankarik ez bururik, haien eginkizunak ez dituzte denboraz egin, haurren planifikazioan atzerapenak izan dituzte eta aitzakia horiek erabili dituzte beren burua zurrizteko.

Hortaz gain, Zorionek COVID errefortzuak irailetik aurrera, ikasturte osoan zehar, Haurreskoletan egongo direla ziurtatu du, bai eta ordezkapenak beteko dituzten konpromisoa hartu ere. Hau ikusteko dago, orain arte ez baitu adostutakoa bete. Gure partetik taldekatze gelak arautzea eta modu egoki batean sortzea eskatu diegu, izaera hau duten gelak modu neurrigabe batean ez sortzeko. COVID errefortzuei dagokienean, honela banatuko ditu:

- 8 haur baino gutxiagoko Haurreskoletan 2 hezitzaile jardun osoan egongo dira.
- Unitate batetik hiru unitatera pertsona bat gehiago egongo da jardunaldi osoan.
- Lau unitatetik gora jardun oso bat eta erdi gehituko da.

Hori horrela izanik asteartean mugimenduetarako proposamen berria egin behar dute.

Honakoa izango da udako egutegia kontratuari uko egin eta mugimenduei dagokienean:

**\*Uztailaren 26 eta 27an:**

- Hurrengo ikasturtera begira behin-behineko baja egoeran jartzeko (Ordezkoen araudiko 5.1d) oinarrituz).
- Lanerako prest jartzeko (Ordezkoen araudiko 5.1a) oinarrituz).
- Indarrean dagoen kontratuari uko egiteko epea (Ordezkoen araudiko 5.4 b) oinarrituz).

**UZTAILA**

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
26*	27*	28	29	30 Deialdia argitaratu	31	1

**ABUZTUA-IRAILA**

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
Boronda- tezko eskaerak	Behin behineko zerrendak	Erreklama zio eguna	Behin betiko zerrendak	Esleipenak		
30	31	1	2	3	4	5

Onartezina iruditzen zaigu Haurreskoletako langileekiko izan duten errespetu falta enpresak prozesu hori guztia berandu argitaratu baitu, langileak dagoeneko oporretan daudenean. STEILASEk prozesu guztia hurbiletik jarraituko du, zorrotz behatuko dugu, hartu dituzten konpromisoak betearazteko. Ez dugu iazko irailean gertatu zena berriz onartuko.

Animo guztioi eta uda ahalik eta gehien gozatu!!

